

Alex de la Iglesiak ‘Errementari’ filma koproduzituko du

2017/02/13

EGILEA: MALEN IRURETAGOiena

Paul Urkijoren *Errementari* euskarazko film fantastikoaren ekoizpenean hartuko du parte Alex de la Iglesiak. Erabakia Berlinale jaialdiko European Film Market EFM azokan hartu dute egunotan, izan ere, zuzendari bilbotarra bertan da *El bar* lana aurkezten.

Carolina Bang aktorearekin batera **orain hiru urte sortu zuen Pokeepsie Films ekoizpen etxearen bidez hartuko du parte De la Iglesiak Urkijoren lanean.** Orain arte, halaber, hainbat film ekoitzi dituzte, tartean, asteburuan Berlinen aurkeztu duten *Pielas* (Eduardo Casanova, 2017) eta *Musarañas* (Juanfern Andrés eta Esteban Roel, 2014).

Errementari filma Kinoskopiken ekoizpena da, Gariza Films eta Ikusgarri Filmak ekoizpen etxeekin batera, eta Eusko Jaurlaritzaren, hiru Diputazioen eta EITBren laguntza du proiektuak. Filma *Errementari* zital bati buruzko baserri giroko ipuin klasikoan oinarrituta dago. Gizona horren gaiztoa da, non deabruak ere beldur dioten. Urkijok lau urte daramatza haurra zenetik bere ipuin gogokoena izan den horretan lanean, “betidanik” egin nahi izan duen filma aurrera ateratzeko.

Abenduan hasi ziren filmaren grabaketekin, eta martxoan amaitzea espero dute. Euskal Herriko hainbat txokotan errodatu dute, hala nola, Arabako Korres eta Antoñana herrietan, Bizkaiko Ubidea basoan eta Gipuzkoako Agorregi burdinolan. Azken grabaketak platoan egingo dituzte. Aktoreen artean, Itziar Ituño, Eneko Sagardoy eta Gorka Aginagalde daude.